

# INTERRAILA

---

1. [Zer da?](#)
2. [Nork bidaiatu dezake?](#)
3. [Adinaren araberako txartel motak](#)
4. [Non eros dezaket nire txartela?](#)
5. [Zenbat balio du?](#)
6. [Zer dira flexi-pass-a eta 7 p.m. araua?](#)
7. [Zure bidaia 5 pausotan](#)
8. [Intereseko web orriak](#)
9. [Bidaia blogak](#)
10. [Informazio turistikoa](#)

## 1. Zer da?

**Interraila** Europan bizi diren hiritarrei zuzenduta dagoen bonoa da, Europako herrialdeetan zehar trenez bidaiatzeko aukera eskaintzen du, denboraldi zehatz baterako (hilabete gehienez ere). Europatik kanpo, Errusian edo Turkian bizi diren hiritarrentzat [Eurail](#) aukera dago.

Txartel motak:

- ✓ **Interrail Global Pass:** Alemania, Austria, Belgika, Bosnia, Bulgaria, Kroazia, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Finlandia, Frantzia, Britainia Handia, Grezia, Holanda, Hungaria, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Norvegia, Polonia, Portugal, Txekiar Errepublika, Mazedonia, Errumania, Serbia, Suedia, Suitza eta Turkian zehar bidaiatzeko balio du.  
Gainera, txartel honekin zeure herrialdean bertan bi bidaia egiteko aukera daukazu. Horietako bat zeure herrialdetik ateratzeko erabil dezakezu eta bestea bidaiaren amaieran etxera itzultzeko.

Global Pass-ak balio-epe desberdineko txartelak ditu:

Aukera jarraia:

- 15 egun bidaiatu
- 22 egun bidaiatu
- Hilabete bat bidaiatu
- Bi hilabete bidaiatu
- Hiru hilabete bidaiatu

Aukera moldagarria:

- 5 egun bidaiatu hilabeteko balio-epean
- 7 egun bidaiatu hilabeteko balio-epean
- 10 egun bidaiatu bi hilabeteko balio-epean
- 15 egun bidaiatu bi hilabeteko balio-epean

**Interrail One Country Pass:** herrialde bakar batean zehar bidaiatzeko. **Ezin duzu** Interrail One Country Pass txartela zeure herrialdean bidaiatzeko erabili.

Aukera moldagarria:

- 3 egun bidaiatu hilabeteko balio-epean
- 4 egun bidaiatu hilabeteko balio-epean
- 5 egun bidaiatu hilabeteko balio-epean

- 6 egun bidaiatu hilabeteko balio-epean
- 8 egun bidaiatu hilabeteko balio-epean

Bi herriren barruan bidaiatu nahi baduzu, bi Interrail Country Pass konbinatu daitezke. Hiru herri edo gehiago ezagutzeko Interrail Global Passs erostea aukera ekonomikoagoa izango da.

Interraila bidaiata baino **3 hilabete lehenago** eros daiteke Espainian.

Interrailarekin Europako trenak erabiltzeaz gain, kontinenteko hainbat ferry linea hartzeko aukera izango duzu. Kontsulta ezazu zerrenda [hemen](#).

Urte askotan zehar, interrailak herrialdeak zona ezberdinetan banatu izan ditu, baina 2007tik aurrera jada ez da horrela. Orain, interraila globala (aurretik aipatutako herrialdeak barne hartzen ditu eta nahi duzun moduan bidaiatu dezakezu) edo herrialdekoa (herrialde bakar batean zehar bidaiatzeko) izan daiteke.

## 2. Nork bidaiatu dezake?

Bono honek, aukeratutako modalitatearen ezaugarrien arabera, Europako 30 herrialdeko konpainia parte-hartzaileekin eta Italia eta Grezia arteko itsas garraioarekin bidaiatzeko aukera emango dizu.

Bonoa ondorengo herrialdeko batean bizi diren pertsonak eros eta erabil dezakete: Albania, Alemania, Andorra, Austria, Belgika, Bielorrusia, Bosnia-Herzegovina, Bulgaria, Vatikanoko Hiria, Kroazia, Txipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Mazedonia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Islandia, Italia, Kosovo, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburgo, Malta, Moldavia, Monako, Montenegro, Norvegia, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Irlanda, Errumania, Errusia, San Marino, Serbia, Suedia, Suitza, Turkia eta Ukraina.

Baita ondorengo lurraldeetan bizilekua dutenek ere: Finlandiako Aland Irlak; Danimarkako Feroe Irlak; Gibraltar, Guernsey, Erresuma Batuko Man Irla eta Jersey; Norvegiako Svalbard eta Jan Mayen.

### 3. Adinaren araberako txartel motak

- ✓ **Gaztea edo "Youth":** txartelaren balio-epea hasten den egunean bertan 28 urte beteta ez dituztenentzat.
- ✓ **Heldua:** 28 eta 59 urte bitartekoentzat.
- ✓ **Nagusiak edo "Senior":** 60 urtetik aurrera.
- ✓ **Familiarra:** heldua eta 4 eta 11 urte bitarteko umeak.

Txartela **pertsonala eta besterenezina** da, horregatik NAN edo pasaporte argazkidunaren bidez nortasuna eta jaiotze-data egiaztatzea beharrezkoa da.

### 4. Non eros dezaket nire txartela?

Bi aukera dituzu:

- Renfeko edozein geltokira joan eta zure NANrekin momentuan bertan erosi.
- Internet bidez [hemetxe bertan](#) eskatu.

### 5. Zenbat balio du?

Hainbat faktoreen arabera salneurria aldatuko da: lehen edo bigarren mailan bidaiatzea, adina, erosi nahi dugun txartel mota, bidaiatu nahi dugun data...

- ✓ [Global Pass txartelaren prezioak](#)
- ✓ [One Country Pass txartelaren prezioak](#)

### 6. Zer dira flexi-pass-a eta 7 p.m. araua?

Flexi pass txartelarekin zuk zeuk aukeratutako egun zehatzetan bidaiatu dezakezu, txartelaren balio-epearen barnean.

**Adibidez:** Global Pass txartela erosi baduzu (10 egun 2 hilabeteko epean bidaiatzeko) eta bere balio-epeak ekainaren 1etik uztailearen 31ra irauten badu, zuk zeuk

aukeratutako 10 egun zehatzetan bidaiatu dezakezu. Bidaiatzeko egunak ez dira elkarren segidakoak izan behar, bidaiaren edozein momentuan erabil ditzakezu.

Flexi Pass txartela erabiliz egun kopuru zehatza izango duzu nahi duzun momentuan erabiltzeko, Eurail Pass txartelak balioa duen bitartean.

Mota honetako txartela erabiltzen baduzu ez zaitez 7 pm arauaz ahaztu, honen bidez bidaia egunak aurreztuko dituzu! 19:00etatik aurrera ateratzen den gaueko trena erabiltzen baduzu eta bere azken geltokia goizeko 4:00ak baino beranduago bada, nahiz eta zeu 4:00 baino lehen trenetik jaitsi, egun bakar bat gastatuko duzu.

Arau hau txartelaren aktibatze dataren ondoren erabil dezakegu bakarrik. Hau da, zure Eurail Pass txartela abuztuaren 6an aktibatzen bada, ezin izango duzu 7 pm araua abuztuaren 5eko gauean erabili.

Trenak: gaueko trena 19:00etatik aurrera hartzen badugu eta azken geltokira 4:00ak baino beranduago heltzen bada, bakarrik helduera eguna markatuko dugu egutegian.


Ferryak: 7 pm arauak ferryak gauez erabiltzeko ere balio du, kasu honetan ez dira irteera eta helduera orduak kontuan izango.

[Argibide gehiago](#)

## 7. Zure bidaia 5 pausotan

1. **Aukeratu zure Interrail Pass txartela:** lehenik eta behin, zenbat herrialdetan zehar bidaiatu nahi duzun aukeratu behar duzu, honen arabera, esan bezala, bi txartel mota daude: Global Pass txartela aurretik aipatutako 30 herrialdetan zehar bidaiatzeko edo One Country Pass txartela herrialde bakar bat ezagutzeko. Kalkula ezazu zenbat egun behar dituzun zure zerrendako toki guztiak bisitatu ahal izateko eta orduan jakingo duzu zer txartel mota erosi behar duzun.
2. **Ibilbidea prestatu:** bisitatuko dituzun herrialdeak erabaki ondoren zure ibilbidea prestatzeko unea izango da. Kontsulta ezazu Interrail Pass txartelak barne hartzen dituen tren eta ferryen ibilbide nagusiak biltzen dituen [Interrail mapa](#). Bertan, hirien

arteko bidaia bakoitzaren iraupena kontsulta dezakezu, horrela, bidaiatzeko behar duzun denbora kalkulatzeko aukera izango duzu. [Mapa pdf](#)



3. **Trenen ordutegia bilatu:** zure ibilbidea prestatzen duzun bitartean, trenen ordutegia [hemen](#) kontsultatu dezakezu.
  4. **Trenen erreserbak egin:** zure Interrail Pass txartelarekin Europako tren gehienetara sartzeko aukera izango duzu, baina kontuan hartu badirela alde aurretik erreserbatu behar diren trenak. Erreserbarekin tren zehatz batean eserlekua ziurtatzen duzu. Trenaren irteera baino 3 hilabete lehenago egin dezakezu erreserba. [Argibide gehiago.](#)
  5. **Prestatu zure bidaia irten aurretik:** bidaiarako beharrezkoa den informazio guztia bildu duzula ziurtatzeko momentua da: trenen ordutegiak, ostatua, bisitatuko diren hirien gidaliburuak... Aldez aurretik ondo antolatuz gero zure bidaiari probetxu osoa aterako diozu.
- ✓ Rail Planner aplikazioa: [Iphone](#) / [Android](#) : Rail Planner aplikazioaren bidez treni buruzko informazioa bilatzeko aukera izango duzu, zauden lekuan zaudela. Internet gabe erabil daiteke eta Europako trenen irteera eta helduera ordutegiak azkar bilatzeko lagungarria da.

- ✓ [GoEuro](#): autobusen ordutegiak eta prezioak bilatzeko.
- ✓ Edozein zalantza izanez gero, herrialde bakoitzeko tren enpresen web guneak bisitatu. [Hemen](#) kontsulta ditzakezu.
- ✓ [Citymaps](#): hirietako mapak deskargatzeko aukera eskaintzen du ondoren offline erabili ahal izateko.
- ✓ Sortu zure [Google Maps](#) ibilbidea, modu honetan zure mugikorrean informazio guztia gordeko duzu: ibilbidea, geltokiak, aukeratutako ostatua...
- ✓ [Europako osasun txartela](#): 2 urteko iraupena du eta ondorengo herrialdetan erabil daiteke: Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Txipre, Kroazia, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria Irlanda, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburgo, Malta, Norvegia, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Errumania, Suedia eta Suitza.
- ✓ [Hostelling International](#), [Hostelworld](#), [Booking](#), [TripAdvisor](#), [Inter-rail.org](#) [aterpetxeen bilatzailea](#)... bezalako web guneak arrazoizko ostatua bilatzeko kontsultatu ditzakezu. Beste aukera bat [couchsurfing](#) erabiltzea da, herrialdeko hiritarrek bidaiariei sofa edo ohe bat eskaintzen diete gaua doan pasatzeko.
- ✓ Gogoan izan [Aterpekide](#), [Gazte Txartela](#) eta [Go25](#) txartelekin hainbat tokitan deskontuak lor ditzakezula: ostatua, museoak, garraioa...
- ✓ Ez ahaztu Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioaren [Bidaiarien erregistroan](#) izena emateaz. Erregistro hau atzerrira bidaiatzera joaten diren pertsonekin kontaktuan jartzeko tresna da, larrialdi egoeran bidaiariak lokalizatzeko aukera ematen duena. Erregistroak berak gertuen dituzun enbaxada eta kontsuletxeak mugikorrera bidaliko dizkizu mezu bidez.

## **8. Intereseko web orriak:**

[Eurail: lehen mailan bidaiatzeko](#)  
[Factorytrip](#)  
[Interrailean tren erreserbak egiteko gida](#)  
[Interrail](#)  
[Inter-rail.org](#)  
[Interrail: funtzionamendua, prezioak, iritzia eta gehiago](#)  
[Interrail 2016 trenen mapa](#)  
[Europako trenen sarea](#)  
[Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidaiarien erregistroa](#)  
[Renfe](#)

## **9. Bidaia blogak:**

[Interraila prestatu eta saiakeran ez hil](#)  
[Interraila 9 pausotan prestatu](#)  
[Zer da Interraila?](#)  
[App hoberenak bidaiarientzat](#)  
[Europan zehar bidaiatu Interrailarekin. Hainbat aholku](#)  
[18 urte eta interrail txartela banitu bisitatuko nituzkeen 10 hiri](#)  
[Inter-rail.org web gunearen komunitatea](#)  
[Interrailean bidaiatzeko aholkuak](#)  
[Interrailaren behin betiko gida](#)  
[Interrailaren gida praktikoa. Europan zehar trenez ibili baino lehen jakin behar dituzun 20 gauza](#)  
[InterRail baten istorioak](#)  
[Interraila Europan zehar, low cost bidaiak](#)  
[Interraila: Lisboatik Atenasera trenez modu merkeenean](#)  
[Interraila: Europan zehar trenez bidaiatzearen esperientzia](#)  
[Interraila erabili aurretik ezagutu behar duzun guztia](#)  
[Guztia Interrailari buruz](#)  
[Zure lehen Interraila: 10 hiri eta aurrekontu murriztua](#)  
[Inter-Railarekin bidaiatzea: I Atala- Txartelaren funtzionamendua](#)  
[Inter-Railarekin bidaiatzea: II Atala - Ibilbidea](#)  
[Europan zehar bidaiatu Interrail Global Pass txartelarekin](#)

10. **Informazio turistikoa**

[Alemania](#)

[Austria](#)

[Belgika](#)

[Bosnia](#)

[Britainia Handia](#)

[Bulgaria](#)

[Danimarka](#)

[Errumania](#)

[Eslovakia](#)

[Eslovenia](#)

[Espainia](#)

[Finlandia](#)

[Frantzia](#)

[Grezia](#)

[Holanda](#)

[Hungaria](#)

[Irlanda](#)

[Italia](#)

[Kroazia](#)

[Luxenburgo](#)

[Mazedonia](#)

[Norvegia](#)

[Polonia](#)

[Portugal](#)

[Serbia](#)

[Suedia](#)

[Suitza](#)

[Txekiar Errepublika](#)

[Turkia](#)

[Europako turismo bulegoak](#)

**Oharra:** informazio guztia ondorengoetatik jaso da: <http://es.eurail.com/>,  
[http://www.renfe.com/viajeros/viajes internacionales/interrail.html](http://www.renfe.com/viajeros/viajes_internacionales/interrail.html) eta  
<http://www.inter-rail.org/>

**Aipatu diren blog-ak:** abc.es, cabonorteblog.com, elpais.com,  
elviajero.elpais.com, exoendogenia.wordpress.com,  
historiasdeuninterrail.wordpress.com, hundredrooms.com, inter-rail.org,  
los40.com, losapuntedelviajero.com  
mochileandoporelmundo.com, recorramoseuropa.blogspot.com,  
thefunplan.com, thetrainline.com, todosobreinterrail.blogspot.com  
vdeviajar.com, viajemosentren.com

2019ko martxo